

## ARRASATE-KO BATZAR IREKIA

Ekainaren 21ean Euskaltzaindiak bi bilkura egin zituen Arrasateko Udaletxean: bata barrengoa eta bestea agerikoa.

Barrengo bilkuraren har-emanetako gai batzuk ukitu ziren, hala nola: Bizkaiko Aurrezki Kutxaren laguntzaz eratutako “Eusebio M.<sup>a</sup> Azkue” olerki sariaren oinarriak jartzea; J. M. Barandiaren jaunaren omenezko jaialdira telegrama bialtzea, eta abar.

Bilkura ageriari hasiera ematekoan, agur-hitz batzuk esan zituen Aita Villasantek: nola batzar hora Arrasateko Udalaren eskariz egiten zen, nola herri hartako euskaltzain eta euskal-tzaleren oroitzapenez egiten zen, eta abar.

Ondoren, euskaltzain laguntzaile berriei diplomak eman zitzaizkien. Zarate, Epperre, Bilbao, Zumalabe, Ugalde eta Olaizola jaunei, alegia.

Lehen hizlariak (Jaime Kerexeta apaizak), Juan Karlos Gerra euskaltzain eta heraldikalarri jaunari buruz egin zuen bere hitzaldia. Arrasateko harma-harridun etxeak bana-banaka izendatu zituen, J. K. Gerraren obretarik xehetasunak hartuz.

Jose Antonio Arana lege-gizonak beste hitzaldi bat egin zuen Sebero Altube jaunaren bizitza eta lanei buruz, bai hizkuntzalarri eta bai musicalari bezala dituen mereziak agirian jarriaz.

Aita Villasantek euskeraren bizitzari buruz Sebero Altubek emandako dotriñaren muiña azaldu zuen, eta bereziki euskeraren idatziaren batasuna egiteari Altubek ematen dion garantisia azpimarkatu zuen.

Juan Garmendia “Zeleta” jaunak hitz batzuk esan zituen Benigno Altube, Seberoren anaiaari buruz.

Azkenik, Haritschelhar euskaltzainburu-ordearen hitzekin bukatu zen batzarra.

(*Euskaltzaindiko Prensa Bulegoaren Agiria*)

## SESION PUBLICA EN EL AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

La Academia de la Lengua Vasca celebró dos sesiones, una privada y otra pública, en la Casa Consistorial de Mondragón. En la primera se trataron varios asuntos de trámite, como la aprobación de las bases del concurso de poesía "Eusebio María de Azkue", patrocinado por la Caja de Ahorros Vizcaina; la adhesión al homenaje de don José Miguel Barandiarán, que se celebraba el mismo día en Ataun, etc.

En la pública intervino en primer lugar el presidente, Padre Villasante, saludando a los capitulares y público asistente al acto y recordando cómo la propia Corporación municipal había solicitado que la Academia fuese a Mondragón, gesto que era de agradecer y que la Corporación lingüística aprovechaba la coyuntura para honrar a dos figuras relevantes de la cultura vasca y de Mondragón.

Después se procedió a entregar los diplomas a los nuevos miembros correspondientes señores Zárate, Eppherre, Bilbao, Zumalabe, Ugalde y Olaizola.

El primer ponente y académico correspondiente, don Jaime Querexeta, disertó sobre la figura del que fuera destacado heraldista y académico Juan Carlos Guerra. Enumeró todas las casas solariegas del municipio de Mondragón, que fueron tratadas por el que fue su notario durante muchos años, el mencionado Guerra.

Don José Antonio Arana, abogado, analizó la figura de Severo Altube, trazando su biografía y haciendo una exhaustiva bibliografía de su gran obra lingüística, musical y otras disciplinas.

El P. Villasante, que se ha ocupado en repetidas ocasiones de la figura de Altube, recalcó la gran obra de don Severo, deteniéndose en poner de manifiesto la vigencia de las tesis del mondragonés sobre la vida del euskera y la importancia de la unificación literaria.